



Egoera ekonomikoa eta Merkatuak ASTEKO LABURPENA

2018ko urriaren 8tik 12rako astea

➤ **INGURU MAKROA:**


- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA
- ❖ KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

➤ **ASTE HONETAN MERKATUETAN**

➤ **GURE IKUSPEGIA**

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROGUNEA: INDUSTRIA-EKOIZPENA



Datuaren analisia

abuztuan, **Euroguneko industria-ekoizpenak** % 1 egin zuen gora aurreko hilarekin alderatuta. Abaztuan hazi zen, beraz, uztaileko datuarekin alderatuta. Izan ere, uztailean industria-ekoizpena % 0,7 jaitsi zen, aurreko hilaren ondoan. Urte arteko kopuruetara ekarrita, eta 2017ko hil berarekin deratuz, abuztuko hazkundeak % 0,9koa izan zen euroa partekatzen duten herrialdeetan.


Industria-ekoizpenaren datu berri hori ezusteko positiboa izan zen, analistek espero zutena eta aurreko hileko gorazko berrikusketa baino gehiago hazi baitzen kasu guztietan, Alemanian izan ezik.

Adierazlearen azalpena

Industria-ekoizpenaren indizeak (IPI) herrialde bateko industria-sektorearen adierazgarri den prezio multzo baten ekoizpenean emandako aldaketak neurtzen ditu. Hilero enpresei industria-sektorearen egoerari buruz egiten zaizkien galdetegiaren erantzunetatik lortzen dira datuak. Indizearen bidez, ekonomia baten ekoizpen-maila nola aldatzen den jakitea oso garrantzitsua da hazkundearen azalpena egiteko.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

ERRESUMA BATUA: BPGd



Datuaren analisia

Erresuma Batuko barne-produktu gordina % 0,7 hazi zen ekaina eta abuztua bitartean, aurreko hiruhilabeteen aldean, xehekako eta handizkako merkataritzaren hazkunde handiak lagunduta, hein handi batean, udako hilabeteetako tenperatura ohikoa baino gozoagoa izan zelako. Datu hori argitaratzen duen estatistikako bulego nazionalak adierazi zuen "ekonomiak hazten jarraitu zuela laberri oso kaskar baten ostean", baina, hala ere, "epe luzerako hazkundea joera historikoaren eripitik zegoela oraindik".


Ekonomia britainiarraren hazkundeak apala izaten jarraitu zuen, 2016ko ekainaren 23ko referendumean 'brexit'-aren edo Europar Batasunetik irtetearen aldeko hautua egin zuenetik. Hala ere, Ingalaterrako Bankuak % 1,4ko hazkundea espero du 2018rako.

Adierazlearen azalpena

Estatistiken Bulego Nazionalak argitaratzen du barne produktu gordina (BPGd). Herrialde baten bizitza eta hazkunde ekonomikoa neurtzeko erabiltzen den adierazle ekonomiko bat da. Erresuma Batuk ekoizten dituen azken zerbitzu edo ondasunen batuketa eginez lortzen da, eta hori bora-tarte jakin batean erregistratzen da. Zerbitzu edo ondasun horiek lurralde nazionalen barnekoak izan behar dute, hala enpresa nazionalen nola atzerrikoen eskutik.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: KPI



Datuaren analisisa

kontsumoko prezioen indizea (KPI) % 0,1 hazi zen irailean, aurreko hilaren aldean. Lan Sailak kinarazitako datua analisten aurreikuspenen azpitik dago, prezioak % 0,2 igoko zirela espero zituzten. Hileko datu berri horrek % 2,3ko mailan uzten du urte arteko tasa, hazkunde-erritmoa oteldu denaren seinale, urte arteko hazkunde % 2,4koa izan baitzen abuztuaren.


epiko inflazioa, energiaren eta elikagaien prezioak kanpo uzten dituen, haien hegazkortasuna dela-eta, % 0,1 igo zen irailean. Iazko hil berarekin alderatuta, berriz, % 2,2ko igoera izan zuen.

Adierazlearen azalpena

9la hileroko prestatzen du Lan sailak. Amerikako etxeek kontsumitzen dituzten oinarritzko zerbitzu eta ondasun multzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, "erosketa-saskia" izenarekin agutzen dena. Ez du produktuen prezioa adierazten, baizik eta batez beste haien balioa zenbat ondutxo edo txikitu den, ehunekotan adierazita. Balioaren aldaketak herrialdearen inflazioa haztuko du.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

JAPONIA: BALANTZA KOMERTZIALA



Datuaren analisia

Balantza komertzialak 219.300 milioi yeneko defizita izan zuen abuztuan, iazko hil berean lortutako 4.600 milioiko superabitaren aldean. Esportazioek urte arteko % 7,6 egin zuten gora, 6,65 bilioi neraino. Inportazioak, berriz, % 17,5 handitu ziren, 6,87 bilioi generaino.

Adierazlearen azalpena

Balantza komertzialaren saldoa esportazioen eta inportazioen arteko aldea da, hau da, herrialde tean ekoitzi eta kanpoan saltzen diren ondasunen eta zerbitzuen balioaren eta beste herrialde tean ekoitzi eta erosten direnen balioaren arteko aldea. Saldoa negatiboa denean defizit komertziala ematen dela esaten da, hau da, esportazioen balioa inportazioena baino txikiagoa da; superabit komertziala, ordea, esportazioen balioak inportazioena gainditzen duenean gertatzen da. Adierazle ekonomiko hori herrialde baten ordainketen balantzako osagai bat da.

KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazle a	Aurreik.
10/15	Japonia	Urte arteko industria-ekoizpena	--
10/15	Estatu Batuak	Manufakturen inkesta New York	20.0
10/15	Estatu Batuak	Hileko txikizkako salmenta aurreratuak	% 0,7
10/16	Erresuma Batua	ILO langabezia-tasa 3 hilabete	% 4.0
10/16	Eurogunea	Balantza komertziala SA	--
10/16	Alemania	ZEW oraingo egoerari buruzko inkesta	--
10/16	Alemania	ZEW inkestaren aukerak	-10.8
10/16	Eurogunea	ZEW inkestaren aukerak	--
10/16	Estatu Batuak	Hileko industria-ekoizpena	% 0,2
10/17	Erresuma Batua	Urte arteko KPIa	% 2.5
10/17	Eurogunea	Urte arteko KPIa	% 2,1
10/17	Estatu Batuak	Hileko etxebizitza berriak	-% 5.2
10/17	Estatu Batuak	Fed-en ordainsariak	--
10/18	Japonia	Balantza komertziala	-¥40.1b
10/18	Japonia	Urte arteko esportazioak	% 2.5
10/18	Japonia	Urte arteko inportazioak	% 14.0
10/18	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	--
10/19	Japonia	Urte arteko KPIa	% 1.3
10/19	Txina	Urte arteko BPGd	% 6.6
10/19	Txina	Urte arteko xehekako salmentak	% 9.0
10/19	Txina	Urte arteko industria-ekoizpena	% 6.0
10/19	Estatu Batuak	Bigarren eskuko etxebizitzaren salmenta	5.32m
10/19	Estatu Batuak	Hileko etxebizitzaren salmenta	-% 0.5

JRTSA:

tea negatiboa izan burtsentzat, jaitsiera nabarmenekin, kezka rriak askotarikoak izan baitziren. Interes-tasa altuak izan ziren eta-gune nagusia, etorkizunean enpresen etekinetan eta onomian izan ditzakeen ondorioengatik, hain zuzen ere. Alde rretatik, Trumpek hautsak gehiago harrotu zituen, tasak goeneko estuegiak direla eta ezarritako igoeren erritmoarekin ID oker jokatzeko ari dela adierazi baitzuen. Hala eta guztiz e, inflazio amerikarraren datua espero zena baino baxuagoa in, eta horrek nolabaiteko lasaitasuna ekarri zuen astearen aieran. Horrez gain, gerra komertzialaren ondorioen gaineko ldurak ez ziren uxatu, NDFk munduko hazkuntza onomikoaren aurreikuspenak % 3,9tik % 3,7ra jaitsi baitzituen 18rako eta 2019rako, hurrenez hurren. Ildo horretatik, maila rporatiboan, luxuzko kontsumoko enpresak izan ziren ltetuenak, Txinako eskariaren aurreikuspenek okerrera egin itzuten. Teknologia enpresek ere mundu-mailako irgabetasunaren ondorioak jasan zituzten, eta inbertsiogileek kina ateratzea erabaki zuten hirugarren hiru hilekoan kuratutako irabazi handien kontura. Bestalde, Italia eta painiako aurrekontuek ziurgabetasuna ekarri zuten rkatuetara. Lehenak, Europaren iritzia aurka egiteko prest raitzen duelako, eta Espainiaren kasuan, gobernuak eta rrekin Podemos alderdiak egindako itunak gastuaren nditzea eta zerga-igoerak ekarriko dituelako berekin, npainia elektrikoentzat, esate baterako, arau-arloko iskuaren handitzearen aurrean behera egin zutenak.

ERRENTA FINKOAK:

urtsan, arriskuarekiko ezinikusiak diru-sarrerara bat ekarri en, errenta finkoaren babespera. Ondorioz, bonu merikarrak hilean izandako goranzko bidea pixka bat rretu zuen, eta % 3,25etik % 3,16ra jaitsi zen. Bere omologo europarrak ere berdin jokatu zuen. Bonu emaniarra, berriz, % 0,50eraino jaitsi zen. Bien bitartean, rferikoen errentagarritasuna aztoratu egin zen, eta oera horri aurrekontuekin lotutako arazoa gehitu zitzaion. onu espainiarra % 1,68raino igo zen, aurreko ostiralean ino 10 op gehiago, eta Italia % 3,56an kokatu zen, nahiz a % 3,70eko maila inguruan kotizatzerara heldu zen. edituari dagokionez, diferentzialak ere estutu egin ziren, riskuarekiko ezinikusi handiagoaren bidetik.

BISAK/LEHENGAIK:

iroaren eta dolarraren arteko truke-tasa ez zen gehiegi latu, eta, beraz, merkatuen zurrumbiloa saihestea lortu en, 1.16 \$/euro mailaraino indartuz. Yena, bestalde, bes-aktiboa izan zen beste behin, eta hileko maximo rrietara iritsi zen dolarraren aurrean. Euroaren aldean ere ndotu egin zen. Lehengaiei begira, munduko ekonomiaren zelerazio are handiago baten alertek eragina izan zuten trolioaren prezioan; ia % 4 jaitsi zen astean. Azkenik, earen balioa % 1,25 igo zen, babeserako aktiboa den inean.

INDIZEAK	PREZIOA	% Aldaketa Astean	Ald. % 2018
MSCI WORLD (Local)	1.574,04	-4,30	-0,77
IBEX 35	8.902,00	-3,80	-11,37
DJ EURO STOXX 50	3.194,41	-4,52	-8,83
DJ STOXX 50	2.900,35	-4,27	-8,73
FTSE	6.995,91	-4,41	-9,00
S&P 500	2.767,13	-4,10	3,50
Dow Jones	25.339,99	-4,19	2,51
NASDAQ	7.496,89	-3,74	8,60
NIKKEI 225	22.694,66	-4,58	-0,31
MSCI GORAKORRAK (Lo	54.488,88	-2,38	-10,50
MEXBOL	47.444,05	-1,27	-3,87
BOVESPA	82.921,08	0,73	8,53
SHANGHAI	2.730,05	-7,60	-21,18
Errusia Rts Mosku	1.141,35	-1,55	-1,13

Gobernuen tasak	Maila	Aldaketa Astean	Ald. 2018
ALEMANIA 2 URTE	-0,56	-0,05	0,07
ESPAINIA 2 URTE	-0,13	0,05	0,22
AEB 2 URTE	2,85	-0,03	0,97
ALEMANIA 10 URTE	0,50	-0,08	0,07
ESPAINIA 10 URTE	1,68	0,10	0,11
AEB 10 URTE	3,16	-0,07	0,76
ALEMANIA 30 URTE	1,12	-0,06	-0,14
ESPAINIA 30 URTE	2,79	0,11	-0,06
AEB 30 URTE	3,33	-0,07	0,59
Kreditu-spreada (op)			
MARKIT ITRX EUROPE 12/23	74,09	4,87	29,17
MARKIT ITRX EUR XOVER 12/23	293,81	13,24	61,37

Dibisak	Maila	% Aldaketa Astean	% Ald 2018
Dolarra / Euroa	1,16	0,43	-3,82
Yena / Euroa	129,49	-1,04	-4,34
Libera / Euroa	0,88	-0,05	-1,14

Lehengaiak	Maila	% Aldaketa Astean	% Ald 2018
Petrolio (Brendt)	80,87	-3,95	21,03
Urrea	1.217,95	1,25	-6,53



Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.